



Eman hegoak euskarari



Haikuak: solasaldia bidean

Zertan dira desberdinak Peru Magdalenaren liburua eta Joxe Mari Iturraldearena?

JON KORTAZAR

Berriki agertu den Joxe-mari Iturraldearen 'Udaberria sutan' haiku liburua berpiztu dit Japoniako ahapaldi eta poesia molde horri buruz hitz egiteko gogo. Zeren Pott Bandako partaidea izan zen Iturralde gain, aurtengo poesia liburu salduenen artean kokatu beharko genuke Balea Zuria argitaletxeak oso edizio bitxian plazaratu zuen Peru Magdalenaren 'Tantaka' haiku liburua, hirugarren agerraldian dena, eta hiru edizio asko dira gure lurraldean.

Kasualitatea ere izan da, baina orain gutxi heldu diot Juan Kruz Igerabide, beste haiku egile apartaren liburu ez oso ezagunari. 'Botoi bat bezala' 1999an argitaratu zuen eta ez zuen oihartzun handiegirik izan gure artean. Bada errepikakorra izateko arriskua kontu honetan, baina gogoratu behar da zer den haikua: «Bost, zazpi eta bost silaba dituen hiru bertsoz osaturiko ahapaldi xume hori», deitu izan dio Juan Kruz Igerabidek.

Eta gainera oso zabaldu da izadiaren aurrean sentituriko txundiduraz, bakeaz, epifaniaz osaturik sortzen dela poema bizi, labur, eraginkor hori.

Aipaturiko hiru egileen aipua irakurtzen nituenean, Seiko Ota idazleak idatzi duen 'Seis claves para leer y escribir haiku' liburura jo nuen eta han ikusi nuen haikua ez dela soilik izadiaren aurrean lortu ohi dugun ikuspegi baketsuren zein liluragarriaren aipamena egitea. Beste izaera batzuk gordetzen dituela barnean dio Seiko Ota idazleak, gure bizitzako bidean solasaldia baita haikua.

Horiatariko bi ez dira gure artean erabiltzen. Haikuaren so-

Peru Magdalena autorearen lanak poesia eta izadia lotura lodiz lotzeko gaitasuna du

rera unean, poema labur eta txiki hori etxeko jaunari zein andreari agur gisa ulertzen zen, gure eskari kopletan gertatzen den moduan. Baina molde hori ez dugu jada erabiltzen. Haikua, bertsoetan gertatzen den moduan, sormen momentuan elkarrekiko lankidetzaren bidez sortzen zuten Japonian. Eta une hori ere galdu dugu guk.

Beste laurak ordea, oso bizi-rik daude. Eta haikuaren barnean sortzen diren elkarriketak dira. 'Kigo' deitzen dute lehena: izadiaren une batekin lotzea dute haikua, eta aipamen sotilak iradokizun garbiak sortzen ditu irakurlearen barnean. 'Atarashimi' deitzen duten joerak berritasunaren ekarpena bilatzen du eta irakurlea ezezaguna den mundu batean sartzen du. 'Toriawase' teknikak gai biren elkarketa dakar, haikuaren iradokizun indarra areagotuz. Elipsia da azkena, isiltasunaren indarraren agerpena, esanda ez dagoena irakurri behar du beti haiku tradizio-

ko irakurleak.

Egiteko, idazteko hain erraza ematen du haikuak! Baina badu arriskurik: denek ematen dute berdin eta kontraste faltak amildegira darama idazlearen ahalgina. Orokortasuna da bigeren arriskua. Denek ematen dute berdin berezitasunik gabe. Eta hona helduz gero, badago galde-
era bat: Zertan dira desberdinak Peru Magdalenaren liburua eta Joxe Mari Iturraldearena?

Peru Magdalenaren lanak poesia eta izadia lotura lodiz lotzen ditu: «Zapaburuak/ balea dela amets/ tantak uretan». Eta iradokizuna bilatu du berritasuna bilatu duenena: «Ume sa-soia/ hegazkin zuri hark/ hegadan darrai». 'Tanta' hitzak batasuna eman dio liburuari eta hasieratik amaitu arte ageri da, galant, testuaren batasuna josiz.

Joxemari Iturralde nitasuna maizago aipatu du, eta bere bizitzaren ziztadez osatu du liburua: «Euria ari du/ zerbait kontatu nahi dit/ eta ez dakit zer». Maitasunak edo haren faltak ere utzi du bere lerroa: «Maite banauzu/ esadazu iraillean/ abuztuan ez». Askotan aforismora jotzen du poemak: «Gogoratzen dut/ bihar nik amestuko/ dudan bizitza». Beraz, izadiaren gaia erabili badu ere, beste aipamen askotariko da liburua.

Hara bada, haikuak idazteko modu desberdin bi gure artean zabalik den minaren garai hauetan.



Peru Magdalena.

Aitonarekin basoan zehar

KARLA FERNÁNDEZ DE GAMBOA VÁZQUEZ

Migel Ainara Azpiatzuk, 'Axi' goitizenez ere ezaguna denak, hamar urte baino gehiago eman ditu marrazkilari, komikigile eta horma-irudigile lanetan. Hainbat libururen ilustratzaile ageri bada ere eta idazle gisa 'Arraroa' albumagatik 2017an Etxepare saria jaso bazuen ere, 'Basoan Barna' da bere lehen bakarkako liburua, hau da, berak idatzi eta ilustratu duen haurrentzako aurreneko albuma. Eta ezin modu hobean estreinatuta da, Elkar eta La Topera argitaletxeen arteko lankidetzari esker liburu hau euskaraz plazaratzeaz gain, aldi berean gaztelaniaz, katalanez eta galegoz ere argitaratu baita.

Album honek protagonistaren eta bere aitonaaren arteko harreman berezia erakusten digu, irakurleak bilobarekin eta aitonaarekin basoan zehar ibiltzeko aukera izango du eta biek partekatzen duten natura-

rekiko maitasunaz eta errespetuaz ohartuko da; arean ere, nahiz eta aitona gaztetan ehiztaria izan, orain argazkilaria da. Testuaren eta ilustrazioaren arteko oreka liburu honen gakoetako bat da. Izan ere, bilobaren ahots narratiboaren eta ilustrazioen arteko harreman disjuntiboa jolas gisa aurkezten da, irakurleak basoan bizi diren izaki guztiak ikusi ahal izango ditu protagonistarentzat oharkabean pasatzen diren bitartean. Bukar, ordea, aitona sorpresa bat prestatuko dio bere bilobari txangoan zehar ateratako argazkiekin.

Formatu horizontaleko liburua da, ezin hobe paisaiak irudikatzen eta pertsonaien ekintzei bizitasuna emateko. Ainara Azpiatzuren ilustrazio koloretsu eta

adierazkorrek ere galanki laguntzen dute horretan. Labur esanda, liburu hau album ilustratuak eskaintzen dituen aukera narratiboaren beste adibide bikaina da. Basoan eta bertan bizi diren animalien edertasuna goraipatzen du eta irakurleei, haur zein helduei, basoan barna galtzeko eta protagonistekin batera bertatik paseatzen gona bita egiten die. 'Il dolce far niente'.



BASOAN BARNA
AINARA AZPIAZUK
ADURIZ 'AXI'

Elkar. 40 orr. 14 euro

Gurasoen babesera

ARANTXA URRETABIZKAIA



Inork ez dizu ukatuko guraso izatea zaila denik. Batetik errezetak hamai-ka osagai dituelako, lehen enbor zena orain mila adaxkatan zatitu delako eta osagai batzuk eskuratzea zaila delako. Bestetik, osagai bakoitza zein neurritan erabili behar den eztabaidagai delako.

Hori bai, familia gehienek uste dute beraiek badutela errezetarik hoberenaren sekretua. Errazago zen lehen, argi zegoelako zer, nola eta noiz egin, horretarako idatzi gabeko legeak zeudelako. Nik ez ditut ikusten nire gurasoak osagaien neurriaren gainean eztabaidatzen. Beraien gurasoek egindakoa egin zuten, hori zelako egin behar zena.

Eta zalantza bazituzten, aski zuten legea jarraitzearekin edo apaizari galdetzearekin. Gero etorri ziren bu-

ruhausteak. Autoritatea bai, guraso baten agindu egin behar duelako, baina, ai, askatasuna ahaztu gabe. Haurrak eta gaztetxoak argi behar dituelako arauak, mugak, betebeharrak baina, ai, malgutasuna ahaztu gabe.

Argi dago familia bakoitzak bere erabakiak hartzen dituela. Zailagoa da antzematea zein norabide daraman gurasotasunak gure gizartean, zeintzuk diren joera nagusiak. Joera nagusi bat eztabaidaezina da: gero eta haur gutxiago familia bakoitzeko, duela bi belaunaldi normala zenaren erdira heldzeraino. Salbuespen ziren duela mende erdi seme-alaba bakarrak, ia arau bilakatu dira. Hori bai, orduan seme bakarrak zuten estigma erabat ezabatu gabe.

Hortik aurrerakoa lausoagoa da. Gurasoen autoritatea malgutu egin da, baina, era berean, familia gehienek lehen haur eta gaztetxoek ez zuten babes eskaintzen diete, adin txikiko iza-teari utzi ondoren ere. Duela gutxi Mallorcan gaztetxoekin gertatutakoak hori adierazten du. Libre dira etxetik kanpo oporrak egiteko, baina erantzukizunik gabe. Arazo bat sortzen denean, gaztetxoak, aitatxoren eta amatxorengana, agintariek nahi dutena esanda ere.